

Mari Carmen Ibarbia Sarriegi

*Beasain, Gipuzkoa
(1941)*

Aurkibidea

Biografia



Uxategi baserrian jaio zen eta Loinatz auzoko Gaztelumuñon bizi. Eskola urteak karmeldar mojekin egin zituen Beasainen eta, ondoren, Donostiara joan zen ikasketak amaitzera. Oso hitzun interesgarria. Hainbat gai jorratu zituen 2006an egindako elkarrizketan: umetako jolasak, gaztetako ibilerak, jai giroa, erromeriak, antzinako ohiturak, erlijioaren garrantzia gizartean, eta abar.

Zintak

BEA-033

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-01-03
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

BEA-034

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-01-03
- **Iraupena:** 54 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Euskararen galera; sukaldeko euskara

- **Erref:** BEA-033/001
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskararen galeraren inguruko azalpenak. Erdararen eragina; jendearen pertzepzioa. Beasainen euskara ia guztiz galdu zen garai batean; hala ere, zenbait etxetan euskara oso ongi gorde zen, batez ere baserri giroan. Euskararen egoera inguruko herrietan.

Transkripzioa

- Ordun galdu emen zan hemen euskera asko. Ta gero bertako jendek´e iruitzen zitzaien, ba, gutxigo zekiela euskeraz bakarrik eitten bazoen, eta, ordun, asko galdu zan hemen. Eta eskerrak etxetai, etxei. Nee edadekok badare jendek euskeraz ez dakienak, e? Hemen jaiotakok, e?

- Orduan, ze esango zenduke, Beasaiñen euskera non gorde izan da edo...?

- Etxetan.

- Etxetan?

- Nik euskera sukalde esaten diot gure euskera; sukaldetan gordetako, bai, bai, etxetan.

- Eta kale inguruan gehiago edo baserri inguruan?

- Baserrin, baserrin; kalen... mmm... bakarren bat igual bai, baiño oso gutxi. Baserrin, baserrin bai gorde da. Ta baserri danetan´e ez, e? Baiño gehienetan bai.

- Eskerrak, orduan, ez?

- Bai, bai, bai. Nik esango dizut, nere gizona tratante izandakoa da eta aittekin, bere aittekin, ibiltzen zan. Eta nere gizonak euskeraz badaki baiño bere senidek ulertu bai pixkat, baiña hola konbersazio bat eamateko ezta

pentsatu´re. Ta aittek ia ez zekin erderaz, e! Itten zon erderaz, baiño alrebes-alrebes erabat, e? Baiño... Bai, bai, hemen Beasaiñen... Ta ingurutako herritan bai, Idiazabal dala, horik dana, dana, asko euskeraz. Baiño Beasaiñen kalen ez zan bate eitten.

2. Baserritarrak gutxiago ziren ustea

- **Erref:** BEA-033/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Beasain eta inguruko herrietan euskararen egoera oso desberdina zen. Ordiziako giroa; egoera. Amonaren ustez, trenbidea egitera etorritako jendearen eraginez hasi zen euskara galtzen Beasainen. Bertako jendearen erantzuna. Erdara vs. euskara; kaletarrak vs. baserritarrak. Baserritarrak ezjakinagoak zirela pentsatzen zuten askok. Eskolara joatearen garrantzia.

Transkripzioa

- Orduan, ez dakit, egoera oso desberdiña zan Beasaiñen edo inguruko herrietan?
- Bai. Bai, bai, bai, bai, bai. Ta Ordizin´e gehio eitten zan Beasaiñen baiño.
- Merkatua zala ta...
- Bai. Merkatue nola zan, ingurutako herritatik etortzen zan jendea ta, ordun, ba, trato... ganadue ta eoten zan ta hoik danak euskeraz. Baiño Beasaiñen... Eta esaten dizut, gure amonak esaten zon ferrobiariokatik zala.
- Orduan haiek kanpotik etorri eta...
- Kanpotik bai, bai. "De fuera vendrán que de casa te echarán" da erderaz esaerea ta... Bai, bai.
- Eta bertako jendeak ez zuen holako ahalegin edo...?
- Ez, geittu... ba... atrebittu´re ez ordun. Karo, ikusten zuen erderaz, "jo, gu baiño gehio die" pentsauko zuen. Ba, nik behin batekin euki non diskusio bat: baserritarrak ez ziela hain azkarrak. Ta esan nion: "Zuk ez diazu esango zu ni baiño azkarragoa zeanik", "Nik ez det hori esan nahi! Nik ez det...", "Ez, hori esan diazu ta ez, ni ez naiz zu baiño tontagoa, e! Zu ez zea ni baiño azkarragoa, e! Tontagoa´re ez, baiño azkarragoa´re ez, e!". Horrek ez du ezer jakin nahi. Baserrian jaio... Baserrin bakizu zer gertatzen zan asko? Baserriko lana baldin bazoen, eskola´re asko faltau. Ta kalekok egunero-egunero; gertugo, ta beti... Baiño ez tontogoa dalako, e, baserritarra. Baiño harekin... Baiño iruitzen zitzairen, ba, hori, ez bazekien erderaz, ba, gutxigo zekiela o nik ez dakit. Bai, bai.
- Eta orduan bazegoen pixkat pentsaera hori...
- Bai, bai, hemen bai.
- ... basarriko jendea, ba, hori, ez? Pixkat...
- Gutxigo giñela. Bai, bai.
- Eta esan duzu, gaiñera, burlak edo...?
- Bai, bai, "Casera!", hola, burla bezela esaten zan, bai.
- Bertako jendeak, baiña?
- Bai, bai, baiño erdaldune, e? Jende erdaldune hemen bertan bizi zana.

Bai. Oaindio´re badare batzuk, e! Azokan hemen baserritarrak eta bee berdurak eta azak diela eta hau dala eta bestea dala saltzen jartzen die, ta batzuk: "Mira las caseras vendiendo". Oaindio´re badare. Bai, bai. Ta nik hola aitzen badiet, nik... ez naiz ixilik geitzen. Eske min ematen dit! Min ematen dit egia esanda.

3. Uxategi baserriaren historia

- **Erref:** BEA-033/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Uxategi baserrian jaiotakoa; olagizon baten etxea izandakoa omen zen. Baserria 1904 inguruan erre egin zen eta Mari Carmenek berrituta ezagutu zuen. Bere garaian argia errotatik eramaten zuten baserrira.

4. Baserri ingurua

- **Erref:** BEA-033/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserria nolakoa zen. Etxe-atari ederra; soroak; etab. Behe aldean, baserritik gertu, erreka zuten.

5. Uxategi baserriaren egitura

- **Erref:** BEA-033/005
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:06:35. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriaren egitura: sukaldea, logelak, jangela, ukuilua, ganbarak...

6. Uxategi baserriko lur-sailak

- **Erref:** BEA-033/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:10:10

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Soroan artoa eta garia ereiten ziren oraindik, bera umea zela. Uxategi baserriaren soroak non zeuden; toponimia. Uharka. Itulan ibilitakoa aitonaarekin. Baserrian izan zituzten abereak. Aitak baserritik kanpo lan egiten zuen; abereak kentzearen inguruan zalantzak.</p>

7. Uharka

- **Erref:** BEA-033/007
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Uharka zaharra (egurrezkoa) aurkitu zuteneko kontuak. Toponimia.

Transkripzioa

- Eta esan duzu, ez dakit, hor uharka edo aurkitu zutela.
- Uharka, bai.
- Eta zeri esaten diozu hori?
- Uharka? Presa. Presa. Nik harrizkoa ezautu non. Ta gero hori bota zuenen, geo, este... "una riada" nola esaten da?
- Bai, uholdia edo...
- Bai, udaldie izan zan eta azaldu zan egurrezkoa, egurrezko uharka, "una presa". Eta oain...
- Bai, bai, bai. Zaharrena, ez?
- Zaharrena. Eta handik sobra´re datorkio izena soroi: "Uharka aldea" zon izena soro horrek.
- Orduan, lehenengo presa egurrezkoa; gerora ya...
- Eta gero bai, gerora... Oaindio zenbat urte da bota zuena bestea? Nere seme-alabak´e ezautu zuen bestea, harrizkoa, bai.

8. Umetako jolasak; errekan bainuak

- **Erref:** BEA-033/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Umetan sarritan jolasten zuten errekan. Orduko denbora-pasak. Orduko umeak eta gaurkoak; oso bizimodu desberdina. Umetako jolasak. Errekan mutilak bainatzen ziren; neskak pentsatu ere ez.</p>

Transkripzioa

- Zeuek errekan ere asko jolastuko zenuten, ez?
- Askok. Nik han ola ondoren han beheran itten zana plaiatxo bat bezela. Hondarra bel... Onbre, hondarra beltza, ez itsason bezela. Baiño bueno...! Guk jolastu du han...! Izaten gendun beti ontzi txikin bat eta pastelak itten ta tartak itten ta bueno, jolastu du asko. Ordun telebistaik ez zeon ta... asko. Oain itten ez duena umek. Oain ez dakie jolasten! Guk asko, asko, asko jolastu du.
- Edozein gauzakin, ez? Edozer asmatu ta...
- Bai. Bai, bai. Eta kamiñon erdin. Oain badau, ba, zubie?
- Bai.
- Bai. Hor aurrekalden, klaro, kotxek pasatzen ziren ordu-erditik behin o hola. Eta hor sokasaltan? Bueno! Zenbat jolastu duen! Hor, dolare aurrekalden. Askok! Askok!
- Esaten duzu errekan bai asko jolastu duzuela eta baiñatu?
- Ni baiñatu... Nik ez nekin igari, baiño mutillek bai. Gerora ya, gerora zikindu in zana, Zegaman hor papelerea o jarri zuen ta gero ez zeon udetan sartzeik. Baiño bai, bai, baiñatzen zana jendea. Bai, bai.
- Baiña ze baiñatzen ziren mutillak bakarrik eta neskak ez edo...?
- Neskak ordun... Neskak ez ziren baiñatzen ordun. Osea, traje de baño jarri neskea? Bueno! Ezta pentsatu ´re! Mutillek bai praka zaharren bat edo baldin bazeuken. Baiño... ez, ez. Gerora behin o akordatzen naiz hor traje de baño euzkie hartzen einda, baiño ke, ba. Nola igari gero ikasi non... Ordun ez nekin ta...

9. Umetako jolasak; sokasaltoan, harrapaketan, "a tocos"...

- **Erref:** BEA-033/009
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:12:35. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: sokasaltoan; "a tocos", harrapaketan, ezkutaketan... Palazio, errota ingurua izaten ziren beraien jolas-lekuak.</p>

Transkripzioa

- Ta, bestela, esaten duzu sokasaltoan-eta asko...
- Hor dolare aurrekalden? Askok! Eta "a tocos".
- Ze da hori?
- "Tocos"? Raia batzuk eitten die, ba, lurren? Eta hola harri batekin bezela hanka baten gaiñen... "a tocos". Guk... Oain nola esaten dan ez dakit, guk "a tocos" esaten giñun.
- Txingor-gaiñean edo... Bai, tokian arabera...
- "A txingas" o nola... ez...
- Bueno, txingorrian edo...
- Bai. Guk "a tocos" esaten giñun.

- Beste jolasik gogoratzen duzu?
- Sokasalto... A, bai, harrapaketan? Asko! Hor ola ingurun ta “tres navíos en el mar” esaten [genduna]. Igual bi talde ein ta batzuk izkutatzea ta bestek geldittu. Enee! Hor inguru hortan? Palazion ta errotan ta goitik sartu ta behetik atea ta... Enee! Guk ein ez dittuunak! Bai, bai. Ta palazioko...
klaro, oain paite bat ikusten da

10. Jolas eta abestiak erdaraz

- **Erref:** BEA-033/010
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Umetan etxetik kanpo erdaraz egiten zuten. Jolas izenak edo abestiak erdarazkoak izaten ziren. Eskolan, mojetan ibilitakoa da Mari Carmen. "Formación del Espíritu Nacional".</p>

11. Auzoko lagunak eta jolasak

- **Erref:** BEA-033/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Neska-mutilak banatuta ibiltzen ziren eskolan. Auzoan hala ere elkarrekin jolasten zuten. Auzoko lagunak. Umetako jolasak: kanikak. kaniketan nola egiten zuten; kanika klase desberdinak (lurrezkoak, harrizkoak, kristalezkoak). Kanikak, harrizkoak edo berunezkoak izaten ziren.</p>

12. Mutilak erreka bainatzera

- **Erref:** BEA-033/012
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Mutilak mendira joaten ziren jolastera, habia bila, esaterako. Ormaiztegitik datorren erreka garbiagoa omen zen eta bertan zegoen putzu batera igeri egitera ere joaten ziren.

13. Karmelitetako eskola-urteak

- **Erref:** BEA-033/017
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:29:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Karmelitetako eskola-urteak. Garai batean euskaraz hitz egitearren zigorra jartzen zuten herriko eskolan (Escuela Nacional); berak ez du horrelakorik ezagutu mojetan. Mojetan erdaraz hitz egiten zuten.</p>

14. Gaztetan, futbolzaleak

- **Erref:** BEA-033/021
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Gaztetako ibilerak; kaleko giroa. Futbola. Lazkaoko lur-sailetan zegoen Beasaingo futbol-zelaia. Ordiziako futbol taldearekin izaten ziren harra-marrak. Herriko plazan dantzaldia.

15. Gaztetako ibilerak: futbol zelaitik plazara

- **Erref:** BEA-033/022
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Beste kirol batzuetarako zaletasuna. Beasain futbol taldea. Futbol zelaitik plazara, musika banda entzutera eta dantza egitera. Udan eta neguan dantzaldia non egiten zen. Mutiletan-neskatan.

16. Beasain inguruko herrietako jaiak

- **Erref:** BEA-033/023
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:37:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Inguruko herrietako jaietara joaten ziren: Ordizia, Lazkao, Alegia, etab. Idiazabalen San Inazio egunean festa egiten zen.

17. Beasain inguruko jaiak eta erromeriak

- **Erref:** BEA-033/024
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:37:30. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Usurbe eta Murumendiko erromeriak. San Joanetan Olaberriara; Kizkitza. Orduko ibilerak. Mutil-laguna izanez gero gaizki ikusia zegoen beste mutil batekin dantza egitea.

18. Belaunaldien arteko aldea

- **Erref:** BEA-033/025
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:39:10. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Belaunaldi desberdinetan bizitzarekiko ikuspegi desberdina. Esaera zaharra: "Ordubeteko negarra eta sekulako pakea".

19. Aitona-amonak eta haien aurreko ahaideak

- **Erref:** BEA-033/026
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:42:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:

Aitona-amonak. Biak beasaindarrak; amona oso kontalaria. Mari Carmenen aitonaren aitak eta aitona "liñua" (lihoa) egiten zuten.

20. Fede handia

- **Erref:** BEA-033/027
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:44:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Bizitzarekiko ikuspegia; erlijioaren eragina. Emakume batek ume jaioberria zuenean hainbat sinesmen, ohitura zahar, eta bestelako zaindu behar izaten zituen. Amonaren pasadizo bat. Erlijioa, fedearen garrantzia gizartean.</p>

21. Elizak emakumeei ezarritako hainbat ohitura (erditu eta gero, ezkontzean...)

- **Erref:** BEA-033/028
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:49:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Ohitura zaharrak, sinesmenak gizartean. Emakume batek ume jaioberria zuenean hainbat sinesmen, ohitura zahar, eta bestelako zaindu behar izaten zituen. Elizatik pasatu gabe ezin zen emakumea teilapetik irten. Bataioa umea jaio eta berehala egiten zen. Eliza-sartzea. Ezkontzetan ere zapi bat ipintzen zitzaion senar-emazteei.</p>

22. Beasaingo elizak

- **Erref:** BEA-033/030
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:50:25. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Beasaingo elizak. Loinazko San Martin.

23. Apaizari errespetu handia; berorika

- **Erref:** BEA-033/031
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:55:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Meza latinez eta sermoia erdaraz. Euskarazko kanta. Apaizei berorika egiten zitzaien. Klean ikusiz gero, eskuan mun eman behar zitzaion. Garizuman, misioak eta musikarik ez. Aste Santuko ohiturak.</p>

24. Hildako emakume eta gizonezkoentzako hil-kanpaiak

- **Erref:** BEA-033/032
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:55:05. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Hil-kanpaiak desberdinak izaten ziren gizon eta emakumeentzat. Prozesioak. Mantilaren inguruko kontuak.</p>

25. Fededunak beldurtzen zituen elizak

- **Erref:** BEA-033/033
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:57:40. **Bukatu:** 00:59:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Misioetara fraide jesuitak etortzen ziren. Ohitura zaharrak; erlijioaren eragina gizartean. Amonaren inguruko pasadizoa.</p>

26. Baraurik joan behar jauna hartzera

- **Erref:** BEA-033/034
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Hilean behin, jauna hartzeko, baraurik joan behar izaten ziren eskolara.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com